BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1863

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 7koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, 2013ko urriaren 2ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntzen berri jakinarazten duena. Agindu hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena zen, eta 2013. urtean egiten diren edo hasten diren kategoria absolutuko nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten zuen.

AURREKARIAK:

1.– 2013ko urriaren 14ko EHAAn, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 2ko Agindua argitaratu zen. Agindu haren bidez, 2013. urtean egiten diren edo hasten diren kategoria absolutuko nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dira.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 atalean ezarritakoari jarraituz, laguntzak emateari edo ukatzeari buruzko ebazpenak EHAAn argitaratu beharko dira, kasuan kasuko laguntzak arautzen dituzten arauek besterik esaten ez badute behintzat.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 2ko Aginduaren babesean ezarritako diru-laguntzen onuradunak eta emandako diru-laguntzak (I. eranskina) eta ezezkoa jaso duten eskabideak (II. eranskina) argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 7a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

A: Entitate eskatzailea.
B: Diruz laguntzen den jarduera.
C: Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

A	B	C
Asociación Club Deportivo Ciclista Hirumet Taldea	Copa del Mundo Ciclo cross y BTT	10.000,00
Club Atletico Bera Bera Rugby Taldea	Women's Champion League 13/14	37.400,93
Club de Atletismo Santutxu de Bilbao	50.º Campeonato de Europa de Cross por clubes	16.920,00
Club Deportivo Ciclista Velodromo Duranguesado	Copa del Mundo Pista UCI	35.815,59
Club Deportivo Hielo Bipolo	Continental Cup 2013	14.186,00
Club Deportivo Motociclista Gernika Off Road	Campeonato del Mundo Motocross (MX3)	10.000,00
Club Hielo Txuri Berri	Curling Champions Tour	2.098,00
Club Gaztedi	Campeonato de Europa de sokatira (sobre tierra) 2013	23.444,52
Club Leka Enea Tenis de Mesa	Copa Europa de clubes	28.952,48
Club Naútico Hondarribi	Regatas de la clase mini 6,50 minifastnet y trasing	4.386,71
Club Zuzenak	Torneos internacionales de tenis de mesa adaptado 2013	905,24
Club Zuzenak	Pruebas Internacionales de ciclismo adaptado	5.222,46
Goiherri-Ko Kirol Elkartea	TWIF European Tug of War Championship 2013	26.694,88
Orioko Sofbol Bate Bizkorrak Kirol Elkartea	Sofball European Cup Women B	10.829,00
Real Sociedad de Fútbol, S.A.D	Eurohockey Club Trophy	9.926,00
Saski Baskonia, S.A.D.	Euroliga 2013	39.658,53
Sociedad Ciclista Duranguesa	Carreras Femeninas Calendario UCI	26.233,33
Sociedad Deportiva Ugeraga	UCI Ciclismo Lointek	27.126,33
	GUZTIRA	329.800,00

II. ERANSKINA

EZEZKOA JASO DUTEN ESKABIDEAK

A	B	C
Arittzatxu Triathloi Taldea	Iron Man Wales Cymru	Adin-taldeetan (Age Group) antolatutako neurketa baterako eskatu da diru-laguntza; ez da kategoria absolutukoa, beraz. Beraz, ez du betetzen deialdia egiten duen Aginduaren 1. artikulua, hor esaten baita diru-laguntzen helburu direla «nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialak, kategoria absolutukoak».
Club de Ajedrez Sestao	Europako Taldekako Xake Txapelketa Absolutua	Diru-laguntza 2014ko neurketa baterako eskatu da. Beraz, ez du betetzen deialdia egiten duen Aginduaren 1. artikulua, hor esaten baita diru-laguntzen helburu direla «nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialak, kategoria absolutukoak, 2013an egiten edo hasten direnak».